



fagorederlandaldea

INFORMAZIO SEGURTASUN

POLITIKA



Informazio Segurtasun Politika

2024/04

Informazioa funtsezko baliabidea da gure negozioarentzat. Informazioa eta hura kudeatzeko erabiltzen ditugun IKT sistemak babestea funtsezko zereginak dira orain gure helburuak lortzeko. Fagor Ederlan Taldeak gure informazioarekin eta honen babesarekin duen konpromisoa agerian geratzen da:

- Informaziorako sarbidea murriztuz, pertsona bakoitzak bere lanerako behar duen informazioa eskuratu ahal izan dezan eta baimenik ez duen inork ezin izan dezan hori egin.
- Informazioaren segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein egoeraren berri emateko mekanismoak langileen eskura jartzea, berehala konpondu ahal izan dadin Fagor Ederlan Taldeari ahalik eta kalterik txikiena eragiteko.
- Kontzientziazio-programak ezartzea, Fagor Ederlan Taldeko pertsona guztiek informazioaren segurtasunari dagokionez dituzten erantzukizunak uler ditzaten eta politika hau betetzeko aurreikusitako jarduerak bete ditzaten.

Ondorioz, aurrez esandakoa kontuan izanik, Fagor Ederlan Taldeak Segurtasuna Kudeatzeko Sistema Integratuaren (SKSI) esparruan kontuan hartu beharreko aplikazio-jarraibide hauek mantentzen ditu:

- **Konfidentzialtasuna:** Fagor Ederlan Taldeak tratatutako informazioa baimendutako pertsonen soilik ezagutuko dute, aldez aurretik identifikatuta, unean bertan eta eskura jarritako bitartekoen bidez.
- **Integritatea:** Fagor Ederlan Taldeak tratatutako informazioa osoa, zehatza eta baliozkoa izango da, eta eraginpekoek emandakoa izango da edukia.
- **Erabilgarritasuna:** Fagor Ederlan Taldeak tratatutako informazioa baimendutako eta identifikatutako erabiltzaileek uneoro eskuratu eta erabili ahal izango dute, eta aurreikusitako edozein gorabeheraren aurrean informazio horrek bere horretan jarraituko duela bermatuko da.
- **Legezotasuna:** Informazioa gure beharren arabera ziurtatzeko, kudeaketa sistema bat ezarriko da, indarrean dagoen legeria eta gure kontratu eta sozietate konpromisoak beteko dituen eta lan esparru egokia eskainiko duena.

Politika honen bidez, Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzen du hemen deskribatutako segurtasun eta pribatutasun jarraibideak betetzeko beharrezkoak diren antolamendu, teknika eta kontrol neurriak babestea eta sustatzea.

Era berean, SKSI gehitutako politika eta prozedura guztiak Fagor Ederlan Taldearen Zuzendaritza Nagusiak berrikusi, onartu eta bultzatuko ditu.

Segurtasun eta pribatutasun politika hau mantendu, eguneratu eta erakundearen helburuetara egokituko da, eta bat etorriko da erakundearen arrisku estrategikoen kudeaketa testuinguruarekin.

Horretarako, planifikatutako tarteetan edo aldaketa esanguratsuak gertatzen diren guztietan berrikusiko da, egokitasuna, egokitzapena eta eraginkortasuna mantentzen direla ziurtatzeko.

Sinadura :

Fagor Ederlan Taldeko Zuzendaritza Nagusia